

LAN MERKATUAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA BULTZATU NAHI DUTE

Emakumeen kotizazioak %60 jaitsi dituzte alor batzuetan

■ Espainiako Lan Ministerioak emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatunahi du. Horretarako, emakume gutxi dauden ogibideak zehaztu ditu, eta lanbide horietarako egiten diren kontratuen kotizazioak %60 jaitea erabaki du.



Gobernuak iragarritako abantailak jasotzeko, kontratuek behin betikoak eta lanaldi osokoak beharko dute izan.

Erredakzioa / Donostia

EMAKUMEEI behin betiko lan kontratu gehiago egin diezazkieten eta emakumeak lan merkatuko alor guztietan tokia izan dezaten, Espainiako Gobernuak aukera berdintasunerako neurri sorta bat onartu eta abiatu du. Proposamenen artean azkena atzo Gobernuak onartutako lege berria da. Arau berri horren arabera, alor jakin batzuetan emakumeei egiten zaizkien kontratu finkoen kotizazioak %60 merkeago izango dira.

Neurri horri esker, bost mila kontratu berri egingo direla espero du Madrilgo Gobernuak. Dena dela, nahikoa aurrekontua bada goenez, emaitza hori gaintzeaz oso litekeena dela ere esan zuen atzo Javier Arenas Espainiako Lan ministroak arau berria iragarri zuenean. Kotizazioen jaitsiera bi urte egongo da indarrean.

Duela sei urte abiatutako lege baten ondorioz pizgarri horiek aplikatu izan dituzte hainbat alorretan. Baina lan merkatuak hainbat aldaketa izan ditu azken urteotan, eta Madrilgo Gobernuak egoera berrira egokitzea beharrezkotzat jo du. Horretarako, pizgarriak jasotzea zeukaten lanbideen multzoa zabaldu egin dute orain. Gobernuaren sailkapen ofizialen arabera, 439 lanbide daude, eta horietatik 302k izango dituzte Gizarte Segurantzaren kotizazioen jaitsierak.

Kotizazioak jaitsiz lagunduko dituzten lanbideak aukeratzeko, lan merkatuaren azterketak azaleratu dituen emaitzetatik abiatu dira Madrilgo agintariak.

Ardura postuetan emakumeen kopurua %24koa da • Estatistiken arabera, administrari gisako lanbideetan emakumeen kopurua %55,5ekoa da; zerbitzuetan eta

kualifikaziorik gabeko lanetan, aldiz, %69,5ekoa. Merkataritzan eta ostalaritzan %62 ingurukoa da emakumeen kopurua.

Bestalde, zuzendaritza postuetan emakumeen kotizazio maila ez da %24ra ere iristen. Halaber, eraikuntza eta meategi alorretan emakumeak gizonak baino askoz ere gutxiago dira.

Gauzak horrela, azken alor horietan emakumeei kontratu finkoak eginez gero, enpresariak ez ditu Gizarte Segurantzaren kotizazio osoak ordaindu beharko, kopuru osoaren %40 baizik.

Abantaila horiek lanaldi osorako kontratu finkoetan aplikatuko dira soilik. Horrezaz gainera, pizgarriak jaso ahal izateko, enpresak lan taldea handitu egin beharko du kontratu berriren bat eginez. Hau da, pizgarririk ez da egongo gizanezkoen ordezkari emakumeren bat kontratatzeke.

Azken lan erreformaren arabera,

Gobernuak gehienez %60 jaitsi ditzake Gizarte Segurantzaren kotizazioak, eta kopuru hori da atzo iragarritako aukera berdintasuna bultzatzeko neurrian aplikatuko dena, hain zuzen.

«Neurria ez da berria» • Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeko asmoz Madrilgo onartutako neurria ez dela berria ohartarazi du UGT sindikatuak. «Ez da berria. Izan ere, indarrean dago sindikatuek eta enpresariak lan erreformarako akordioak sinatu genituenetik», 1997. urtean CEOE Espainiako patronala eta UGT eta CCOO sindikatuek lan araudi berria izenpetu zuten. Orduan, Gobernuak aukera berdintasunerako kotizazioen jaitsiera izango zuten lanbide zerrenda berritzeko eta eguneratzeko konprometua hartu zuen, UGTk gogorarazi duenez. X

laburrean

■ Libre daude Reunionen atxilotutako arrantzaleak

TXILEKO bi itsasontzitako eskifaia atxilotu zuten asteartean Frantziako Errepublikako Reunion kolonian. Itsasgizon horien artean hainbat lagun euskal herritarrek dira, eta beste hainbat, berriz, Galizia-koak. Atzo hainbat iturri diplomatikok azaldu zutenenez, ordea, libre daude jada. Arrantzale horiek Antonio Lorenzo eta Ercilla izeneko ontzietan ari ziren lanean, eta, itxura denez, arrantzan baino menik gabe egiteagatik atxilotu zituzten. Afera hori konpontzeko Espainiako Atzerri Ministerioi ordezkari bat Reunionera joan zen atzo. X

■ Garraio komertziala eta arrantza sustatu nahi ditu Pasaiaiko Portuko lehendakari berriak

EUSKO JAURLARITZAKO Garraio Saileko arduradun Alvaro Amannek Pasaiaiko Portuko lehendakari berria aurkeztu zuen atzo: Jose Ignacio Espel. Aurkezpenean, garai batean portu horrek izan zuen garrantzia ekarri zuen gogora lehendakari berriak. Berriz ere portuaren garrantzia indartzeko gogoia duela esan zuen, eta helburu nagusitzat honakoak aipatu zituen: garraio komertziala indartzea, arrantza sustatzea eta ontzien eraikuntza eta konponketa garatzea. X

■ Frantziak babestu egin du trebes sareak erabiltzeko debekuaren aurkako helegite bat

FRANTZIAKO Nekazaritza eta Arrantza ministro Louis Le Pensec-ek adierazi duenez, Ministerioak babestu egiten du Frantziako ipar-mendebaldeko arrantzale batzuek —Yeu uhartekoek— Europako Batasunak hartutako erabaki baten aurka jarritako helegitea, erabaki horrek trebes sareen erabilpena debekatu nahi baitie Europako arrantzaleei. X

Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna bultzatzeko marko orokorra



Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna sustatzea du helburutzat, haien garapena eta lan sorkuntza ziurtatzeko, eta 4.000 milioi pezetako aurrekontu-zuzkidura du, 1996-1999 aldirako.

Onuradunak

Bizkaiko industriako eta industriari lotutako zerbitzuetako Enpresa Txiki eta Ertainak, beti ere 100 langile baino gutxiago badaukate eta Marko Orokorrak hau arautzen duen Dekretuan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Jardunarloak:
- Eragin: Estrategia, Marketina, Lankidetzatza, Inbertsioa
- Kalitatea
- Industri Diseinua
- Trebakuntza
- Kanpoko Merkatuak
- Teknologiaren Transferentzia

Onurak

%70erainoko dirulaguntza aurretiazko azterlanak egiteko eta %50erainokoa ezarpenatarako eta inbertsioen ziozko sarietarako.

Argibide gehiago:

Tel: 94 420 80 22

Obispo Orueta, 6
48009 Bilbo
Faxa: 94 420 80 87
E-mail: sustapena@bizkaia.net
http://www.bizkaia.net/sustapena



Bizkaiko Foru Aldundia
Lan eta Ekonomi Sustapen Saila

Diputación Foral de Bizkaia

Departamento de Promoción Económica y Empleo